

Prensa oharra

Nota de prensa



Hiri Lurren balio gehikuntzaren gaineko Zergaren aldaketa onartuta

Aldaketek zergaren araudia 2022ko martxoan onartutako Foru Arau berrira egokitzen dute, hain zuzen ere, Udalaren finantziaketan eragin handia ekiditeko tasak egokitzeko aukera ematen duen Foru Arau berrira

Udalak zergaren progresibitatea mantenduko du, eta beraz, epe-laburrean egindako operazioak tasa handiagoa ordainduko dute

Tokiko Gobernu Batzordeak Hiri Lurren balio gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Arauaren aldaketa onartu du. Donostiako alkate Eneko Goiak eta Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok agerraldia egin dute Tokiko Gobernu Batzordearen ondoren gainbalioen zerga bezala ezagutzen den zergan egindako aldaketak azaltzeko.

Eneko Goiak esan du, egindako aldaketak behar bati erantzuten diotela, hain zuzen ere, Udalek 2022ko martxoan onartutako Foru Arau berriari egokitzeko beharrari. Eta Foru Arauak zergaren tasak egokitzeko aukera ematen die Udalei. Horri esker, Donostiako Udalak diru-sarreretan sor zezakeen eragin negatiboa gutxitzeko aukera izango du. Gainera, Goiak honakoa esan du: “Zerga-arau berriak Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aldeko txostena du”.

Zergaren progresibitatea mantendu da

Kerman Orbegozok azaldu du, 2022ko aurrekontuan 13,5 milioi euroko diru-sarrera aurreikusita zegoela aipaturako zerga dela-eta. Baina, kontuan izanda zerga-arauaren egoera eta Auzitegi Konstituzionalaren epaia, aurreikuspen hori ia erdira gutxituko zen.

Horiek horrela, honakoa gaineratu du: “Epaiek Udalen finantziarioari sor ziezaizkien arazoei aurre egiteko, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Arau berria onartu zuten aurtengo martxoan, eta horri esker udaloi eskumena eman digu zerga honetako tasak egokitzeko, eta zerga oinarriaren %30 izateko aukera eman digu”.

Hortaz, Donostiako Udalak zerga oinarriaren %16ko tasa jarriko du, baldin eta operazioa lehenengo bost urteetan egiten bada; %14,50 10 urte baino lehenago egiten bada; %13 15 urte baino lehenago egite bada; eta %12 20 urte baino lehenago egiten bada. Egun, tasak honakoak dira: %11,39; %10,66; %10; eta %9,70.

Horrenbestez, Orbegozok honakoa esan du: “Zergaren progresibitatea mantentzeko erabakia hartu dugu, eta beraz, epe-laburrean egindako salerosketek tasa handiagoa ordaindu beharko dute, izan ere, operazio espekulatiboagoak izan daitezke”.

Ondare-irabazirik ez badago ez da zerga ordainduko

Era berean, Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok adierazi du, ondare-irabazirik ez duten transakzioek ez dutela zerga ordainduko, Auzitegi Konstituzionalak aurreko epaia egin zuenetik egin den bezala.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Gainera, Orbegozok segidakoa esan du: “Zerga kalkulatzeko bi modu daude (modu objektiboa, katastro-balioan oinarrituta; eta modu zuzena, transmisioaren balioa ken erosketaren balioa), eta Udalak bi kalkuluak egingo ditu eta gutxienekoa likidatuko du. Eta horretarako, hau da, bi moduekin zerga kalkulatu ahal izateko, ezinbestekoa da transakzioaren datu guztiak izatea”.

Era berean, zerga kalkulatzeko erraztasunak emateko, Udalak hiritarren eskura simuladorea jarri du, eta horri esker, operazioa eginez gero ordainduko den zerga kalkulatzeko aukera dago (<https://www.donostia.eus/Financiera/Plusvalias2.nsf/wSimularPlusvalia?ReadForm&idioma=eus>).

Departamentuen arteko elkarlana

Zerga foru arau berrira egokitzeko ezinbestekoa izan da udal departamentu ezberdinen arteko elkarlana. Eta departamentuek esfortzu handia egin behar izan dute likidazioak segurtasun juridiko guztiekin tramitatzeko prest egoteko.

Behin Tokiko Gobernu Batzordeak onartuta, Zerga Arauaren aldaketaren tramitazioak aurrera jarraituko du eta, aurreikusita dago, uztaileko ohiko Udalbatzarran onartzea. Eta behin onartuta zerga berria likidatzen hasiko da. Zerga Arau berria indarrean sartu aurretik egingdako transakzioak, hau da, 2021eko azarotik 2022ko uztailean bitartean egindakoak, lehengo zerga arauan ezarritakoaren arabera likidatuko dira.